

egunekoa

Patxi Salaberri

(Nafarroako Euskararen Kontseiluko kide ohia)

Otsoa artzain

Garai latzak bizitzen ari da euskara Nafarroan, hau da, garai latzak bizitzen ari gara hemengo euskaldunak, hizkuntza hitz-nengan bizi baita. Lehendabiziko gauza Nafarroako Euskararen Kontseiluko kideon dimisioa izan zen, irrati frekuentzien banaketan Gobernuak egindako bidegabekeriak eraginik. Izan ere, zertarako nahi zuten Kontseiluaren aholkua gero burutan zutena egin behar bazuten? Erraten den bezala *papeleta* betetzeko ote? Gutako anitz ez geunden horretarako prest eta dimititzea ezin itzurizko eginkizun bihurtu zen.

Bigarren urratsa Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko taldea aldatzea izan zen, kontrolpean edukitzeko. Hor buru ezarri zutena euskararen aurkari sutsua zela bagenekien eta ez zuela inolako mesederik eginen ere bai: horixe, artaldearen zain-tzaile otsoa ezartzea, otsoa artzain alegia, erranairuak dioen bezala. *Nafarkaria*-ri diru laguntza ukatzea eta *Nafar-izkuntzan orria* lotsaemangarriari ematea zuzendari berriaren sendagaila ugarietako bat besterik ez da. Honetaz kestione, zer pentsatuko lukete gu orain, gaztelaniaz, *en comiendo mi ai dir a coger unos tostarricos, pa quiaiga buen fuego*-ren modukoak idazten hasiko bagina (euskarara iraulirik: «bazkalondoan abar txiki batzuk hartzera joanen naiz, su ona egon dadin»)? Pito handi batzuk garela, hain segur ere. Ba, alderantziz ere berdin.

Gero Nafarroako Gobernuak atera zuen dekretua etorri zen, eta, horrekin batean, euskararendako neurri gero eta zorrotzagoak, lehendik gure hizkuntzaren egoera aski estua eta larria izan ez balitz bezala. Hortik lanpostu deialdietan euskara hutsaren hurrengo balioztatzea, bide seinaleak erdara

NAFARROAKO GOBERNUA

Zertarako nahi zuten Kontseiluaren aholkua, gero burutan zutena egin behar bazuten?

ESTRATEGIA BAT

Egitateak dira, egitate zehatzak, hozkiro pentsatuak, estrategia ongi antolatuen ondorio guretako kaltegarriak

hutsean paratzea, «eremu euskalduna» delakoa misto bihurtzen saiatzea, eta abar.

Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko egoera ere aski gogorra izan da azken urteotan euskararendako eta euskaldunendako, eta bestela galdegin diezaietela unibertsitatean itxialdi baketsu eta lasaia egin nahi izateagatik oraindik epaiketaren zain dauden ikasle, irakasle eta administrazio-zerbitzuetako langileei. Estatutuek diotena gorabehera, normalizazio plangintzarik ez da izan NUP 80ko hamarkadan abian jarri zenez geroztik, eta gaur den egunean ere berdin jarraitzen dugu. Edo makurrago, gure ezagun batek erraten duen gisan dena okerrago-tzen ahal baita. Izan ere, Unibertsitatearen autonomiari uko eginik, Gobernuak agintzen duenaren egile esaneko eta gogotsu bilakatu da NUP. Hark prestatu duen Unibertsitatearentzako euskara legea ere ederra da gero! Euskaraz irakastea debekatua dago; bakarrik Irakasle Diplomaturako espezialitate bat emanen da euskaraz eta horretarako, gainera, urtero

urtero Gobernuaren, Legebiltzarraren edo dena delakoaren onespina beharko da. Gero zorioneko irakasgai zeharkako horiek daude, osakera askekoak, azken mailakoak, irakasle berriak kontratatzea justifikatzen ez dutenak, NUPen euskaldunik sar ez dadin, jakina.

Azkena, berriz, epaileek atzera bota duten dekretua aurrera ateratzeko Gobernuak asmatutakoa da: Nafarroako Euskararen Kontseiluaren txostena ezinbestekoa bada, kontseilukide guk nahi ditugunak izenda ditzagun eta bakea eta bi sos! Gauza bat bakararra ahanzi zaie, kontseilukide horiek «*de reconocido prestigio en el campo del euskera*» izan behar dutela eta izendatu dituzten gehienek euskaraz mintzatzenez ere ez dakitela! Ez ongi edo erdi-purdi bakarrik, gehienak bi hitz elkarren hurren errateko gauza ere ez dira eta. Ederra da gero hori!

Laburbilduz, zein da, bada, Nafarroako Gobernuaren helburua? Gehienok aspalditik garbi genekusana: euskarari ahalik eta toki gutxienean uztea, zituen elikabide urriak moztea, arnasa etenaraztea, itotzea. Hori daitekeena ote da XXI. mendean? Frankismoa ez al zen historia liburuetan ikasten den gaia, gurasoek eta zaharrek aldian-aldian ahotan hartzen zuten mintzagaia, iraganeko zerbait? Ba, itxuraz ez. Hau ez da gure irudipena, euskalgintzan ari garenek, sentiberatasun handiegia dugunok hautematen dugun zerbait. Hauek egitateak dira, egitate zehatzak, hozkiro pentsatuak, estrategia ongi antolatuen ondorio guretako kaltegarriak.

Zer egin dezakegu? Oraingoz goiari eutsi, garai hobeen beha gauden bitartean, eta antzinako haiek erraten zuten bezala jokatu, *suaviter in modo, fortiter in re*, alegia, astakeriarik egin gabe eta ideiak garbi edukiaz.

zutabea

Antton Azkargorta

Botoak eta egurra

Badoa dagoeneko argitzen zein den Gasteizko *tripartitoaren* epe ertainerako estrategia. Egibarrek adierazi duenez, aurki izango ditugun udal-hauteskundeak Ibarretxek «*estatus de libre adhesión*» delako proposamenari eginiko berronespen antzeko zerbait bilakatuko lirakeke. Horrela eginez, proiektu zehatz bat —PNVrena, alegia— gizarte osoari aurkeztuko zaio gatazka konpontzeko oinarri orokorra bailitzen. Hauteskundeak beraz, plebiszitu moduko zerbait izango lirakeke.

Tasiok asteazkenean *Gara* egunkarian egindako biñetan oso ondo irudikatu zuen estrategia horren sintesia. Ibarretxeren plana aurrera eramango da ezker abertzalearen kontrako errepre-sioarekin alde batetik, eta plan horren bertuteak propagandaren bidez gogorki matxakatzuz hauteskunde bidea erabiliz, bestetik. *Botoak + egurra* izango da, hortaz, alderdi jeltzaleak hainbeste maite duen «Espainian eroso bizitzea» haren bertsio berria sendotzeko formula. Hots, estatutuari, alternatiba estutorioa; eta beude gundik urruti arinkeria soberanistak edo independentistak.

Nolanahi ere, oso zaila izango da zenbakiak egokitzea. Indarrean dagoen (?) estatutuak lortu zuen onspen mailaren antzekorik lortzeko Bata-suna eta Ezker Batuaren boto guztiak beharko lirakeke, eta hori, gaurko parametroetan, ezinezkoa da. Baina, hala eta guztiz ere, hauteskunde-zentsu osoaren gehiengo handia lortuko balitz ere, hala ere, Ibarretxeren proposamena porrotera joango litzateke berdin-berdin, eta ez, batzuek uste duten bezala, Espainiako legebiltzarrak ipiniko lizkiokeen oztopoen erruz, baizik eta abertzale kontsekuenteen errefusatu eta porrotera eramango dutelako. Eta hori ez dut nik deskubritu: gizartearen sektore horrek berorrek, urte luze-ren borrokaren bitartez, lortu du gaur egun abertzale gehienok zerraldotzat daukagun Gernikako Estatutua horrela agertzea. Eta ez du Madril-ek hil, edukiz bete ez duelako edo, zeren edukiz be-teago egonik ere abertzaleontzat Espainiarekiko mendetasunaren sinboloa izango bailitzateke.

Oso bestelako antza du berriz, lehenbizi Ote-gik eta jarraian Egibarrek egindako deklarazio misterioitsuak: kandidatura bakarra aurkeztea, partiduen siglarik gabea, subiranotasunaren aldeko guztiak bilduz egin litekeena. Horrek bai ekarriko luke, adibidez, zerbait diferente oraingo irteerarik gabeko egoeran.

seiko urrea

Iñigo Aranbarri

Beste garai batzuk

Puzker, titi eta zakil neurrigabeko baten abenturak eta kalenturak zitu-ela arma bakar *pour épater le bourgeois*, arrunt eroso sentitu zen Cela, Don Camilo, frankismopean. Ez alferrik, eta Bilboko Perro kaleko ostatu batean oraino goza daitekeen eskaerak salatzen du, dagoen hobian, Iria Flaviako nobelduna: diktadura eratu berri, bere burua eskaintzen du poliziarentzat txibato laneta-rako. Bazuen arrazoirik. Ongi ezagutzen zi-

tuen salatu beharrekoak. Gerora helduko zen zentsuraz arduratzen zen bulegoan be-saulkia izatea. Baina ulertu behar genuen. «Beste garai batzuk ziren» esanda hil zen.

Beste garai batzuk. PPko gobernuaren-tzat obsesio bilakatu da haiek beste garai batzuk izan zirela lau haizeetara aldarrikatzea. Hala ekin die Aznar presidenteak orain arte ezkeraren patrimonio ziren idazleen aldeko gorazarre omenaldiei. Lehenbizi, Albertiri egin zion bisita El Puerto

de Santa Mariako etxera, erromero eta elar lore artean; gero, Lorca errexitatzen entzun genuen, Azañaren prosa politikoa gorensten; orain, Cernudaren txanda heldu da: «Azkenean, Cernuda libre dago asmo gaizto eta inoren bandera izatetik».

Komunistak, homosexualak... Franco-ren gobernuak kartzelara, erbestera edota errepede bazterreko errepublikara bidali zituen idazle horiek guztiak jaregin nahian hasi du kanpaina Aznarrek. Berak. Bere izenez sinatua. Zalea da jantzi zain hori erakusten Azañak begitan hartua zuen Imanol Aznarren biloba.

Alferrik aurpegiratuko zaio ea zer kopeta den hori, ea ez den lotsatzen, ea ez dakien non diren orain omentzen dituen idazleak betirako isildu nahi izan zituen diktadura

militar hartako ministro eta goi-karguak... Eta zer. Beste garai batzuk ziren. Dotorea-go esan du berak: «Gure azken aurreko historiaren gertaera tamalgarriek urrundu zuten espainiar lurretik Cernudaren bizitza eta obra».

Denborak badakar hori. Alberti, Lorca, Azaña eta Cernuda ez dira dagoeneko ezkerren patrimonio huts, baina Aznarren filia intelektualek zer pentsatua ematen dute. Laster dugu hemen Lauaxetarekin eta Arestirekin. Moncloako prentsa bule-goaren lanak Lorcaren ilargi argitan bezala erakusten digu boterearen mintzoa. Hemen asko dira gerra bigarrenegoz galtzen ari direnak.

Idazleak arriskutsuak zirena, bagenekien. Irakurleez ez ziguten ezer esan.